



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 33
Urtea/Año 2017
Urtarrila/Enero

HILEKO JARDUERAK

Urtarrilaren 13an. Haize-metalezko tresnen kontzertu didaktikoa. 11:00etan udalerriko ikastetxeentzat eta 18:00etan familientzat. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Urtarrilaren 15, 22 eta 29an. 19:30ean: "Andrés Isasi" Musika Eskolako jazz-taldeak eskainitako Jam Session-ak. Areetako "El Comercio" tabernan.

Urtarrilaren 16an. Jazz-kontzertu didaktikoa. 11:00etan udalerriko ikastetxeentzat eta 18:00etan familientzat. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Urtarrilaren 19an. 18:30ean: Toru Kannari irakaslearen gitarrak ikasleen emanaldia "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Urtarrilaren 20an. 18:30ean: Raúl Sainz de Rozas irakaslearen gitarrak ikasleen emanaldia "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Urtarrilaren 21ean: Neguko Bidaia zikloaren 1. kontzertua. Trio Argixe. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan. Sarrera 5€ (ikasleak 3€).

Urtarrilaren 27an. 18:00etan: Bilboko "Juan Crisóstomo de Arriaga" Kontserbatorioko piano-ikasleen errezitaldia "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Urtarrilaren 28an: Neguko Bidaia zikloaren 2. kontzertua. Fetén Fetén. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan. Sarrera 5€ (ikasleak 3€).

TUTORETZEN GARRANTZIA MUSIKA ESKOLAN

Zuetako gehienok, irakasgai bat baino gehiagotan zaudete matrikulatuta gurekin: askok musika-tresna edo kantua ikasten duzue espezialitate gisa eta, gainera, musika-lengoaia edo tresna-talderen bat. Seguru ia guztiok irakasle bat baino gehiago duzuela Musika Eskolan.

Zuen musika-prestakuntza gurekin koherentea izan dadila nahi dugu: irakasgai batetan ikasitakoa baliozkoa izan eta beste batetan ikasitakoarekin erlazionatuta egon dadila, musikaren ezaguerera modu oso eta globalizatuagoan hurbil zaitezten.

Aurkezten dizkizuegun hezkuntz edukieren egokitzapen eta bateragarritasun hobereana lortzeko, irakasleok talde-lana egiten dugu. Dakizuenez, zuetako bakoitzak erreferentzia-irakasle espeziala dauka, zuen tutorea; bere lana, batez ere, gurekin ikasteko baldintza hobereenetan egon zaitezten lortzea da: ikasitakoaren segimenduz arduratzen da gainerako irakasleekin koordinatuz, zuen ikasketak bideratzen ditu... Aholkularirik hobereana duzue, ez izan zalantza izpirik, zuen musika-lana bide egokirik eramateko.

Tutoreek asteroko ordutegia dute zuekin hitz egiteko. Beraiekin hitz egiteak, elkar ezagutzen eta geure lana eraginkorrago izaten asko laguntzen du. Ez zaitezte azken ordura arte zain egon.

IX. NEGUKO BIDAIA

Aurten ere, "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako entzunaretoan, 9. Neguko Bidaia kontzertu-zikloarekin gozatu ahal izango dugu. Sei larunbat jarraian izango dira, urtarrilaren 21ean hasi eta otsailaren 26ra arte; kontzertu guztiak arratsaldeko 7:30ean izango dira. Emanaldi bakoitzeko sarreraren prezioa 5€koa izango da (3€ ikasleentzat); kontzertu guztietarako bonuak daude, 25€tan (15€ ikasleentzat). Oñi denez, egitaraua anitza izango da eta aukera izango dugu musika klasiko, rocka, folk eta jazz entzuteko.

Egitaraua

Lehenengo kontzertua Trio Argixek eskainiko du; klarinete, txelo eta piano hirukoteak Brahms eta Plazzollaren obra interpretatuko ditu. Bigarrena Fetén Fetén bikotearena izango da, orain dela bi urte lortutako arrakasta errepikatzeko asmoarekin. Hirugarrenean Borja Barrueta bateria-jotzailea eta bere Jazz proposamen berritzaileak izango dira protagonistak. Laugarren emanaldian Antonio Dyarzabal piano jotzaileak, Schubert, Janacek, Debussy eta Tchaikovsky maisuen obrez osatutako egitaraua eskainiko digu. Gintonic rock progresiboaren banda bere talde berriarekin batera eskainiko du bosgarren kontzertua; abesti propioak joko dituzte, bai bigarren diskoarenak bai eta prestatzen ari diren hirugarrenarenak. Jaialdiari amaiera emateko, Blas Fernández bateria-jotzaileak, sei kote baten buru dela, "Urbanetniko" bere azken diskoaren abestiak joko ditu.

Ziklo honetan oñikoa denez, kontzertu bakoitzaren ondoren entzuleen eta musikarien arteko solasaldia egongo da.

Informazio gehiago: www.getxo.eus/musikaskola

Hileko egutegia

Urtarrila

al ar az og or la ig

1

2 3 4 5 6 7 8

9 10 11 12 13 14 15

16 17 18 19 20 21 22

23 24 25 26 27 28 29

30 31

■ Jai-egunak

■ Jarduerak eskolan

■ Jarduerak jai-egunetan